

Alexandra Dovgan pianoa / piano

2007an jaio zen musikarien familian eta piano ikasketak hasi zituen 4 urte zituenean. 5 urterekin egin zen ezagun Moskuko Kontserbatorioko Musika Eskola Akademiko Nagusiko sarbide proba gainditu zuenean; Mira Marchenko irakaslearekin trebatu zen han.

Dovgan nazioarteko bost lehiaketatan saritua izan da, Moskuko Vladimir Krainev Nazioarteko Piano Lehiaketan, Astana Piano Passion Piano-jotzaile Gazteen Lehiaketan eta El Cascanueces Musikari Gazteentzako Telebistako Nazioarteko Lehiaketan, besteak beste. 10 urte besterik ez zituen Grand Piano Competition Naziorteko II. Lehiaketako Grand Prix irabazi zuenean.

Gaztea izan arren, munduko kontzertu areto ospetsuenetan jo du, hala nola, Berlingo Philharmonien, Pariseko Théâtre des Champs-Élysées antzokian, Amsterdamgo Concertgebouwen, Vienako Kontzerhausen, Genevako Victoria Hallen, Estocolmoko Konzerthuseten, kritika bikaina eta harrera itzela lortuz.

Datozen hitzorduak honako aretoetan ditu: Vienna Konzerthaus, Pariseko Théâtre des Champs-Élysées, Zuricheko Tonhalle, Berlingo Konzerthaus, Municheko Prinzregententheater, Genevako Victoria aretoa, Lisboako Gulbenkian, eta Turin, Milan, Basel, Bartzelona, Luxenburgo, Lyon eta beste hainbat hiritan.

Pianoa jotzeaz gain, Dovganek eskiatzea, organoa jotzea, balleta eta matematikak ikastea eta neba txikiarekin denbora pasatzea atsegin ditu.

Nació en 2007 en una familia de músicos y empezó sus estudios de piano cuando tenía cuatro años. Con cinco, se dio a conocer al superar las pruebas de acceso de la Escuela de Música Académica Central del Conservatorio Estatal de Moscú, donde estudió bajo las directrices de la profesora Mira Marchenko.

Dovgan ha sido premiada en cinco concursos internacionales, entre ellos el Concurso de Piano Internacional Vladimir Krainev de Moscú, el Concurso de Jóvenes Pianistas Astana Piano Passion y el Concurso Internacional de Televisión para Jóvenes Músicos El Cascanueces. Alexandra tenía tan sólo 10 años cuando ganó el Grand Prix en el II Concurso Internacional Grand Piano Competition.

A pesar de su corta edad, ha tocado en las salas de concierto más prestigiosas del mundo como la Berlin Philharmonie, Théâtre des Champs-Élysées en París, el Concertgebouw de Ámsterdam, Vienna Konzerthaus, Victoria Hall en Ginebra, Konzerthuset en Estocolmo, recibiendo una clamorosa ovación y excelentes críticas.

Entre sus compromisos futuros más importantes, hay conciertos en la Vienna Konzerthaus, Théâtre des Champs-Élysées en París, el Tonhalle de Zurich, la Konzerthaus de Berlin, el Prinzregententheater de Munich, la Sala Victoria en Ginebra, Gulbenkian en Lisboa y en Turín, Milán, Basel, Barcelona, Luxemburgo, Lyon y muchos más.

Además de tocar el piano, Dovgan tiene otras pasiones como esquiar, tocar el órgano, aprender ballet y matemáticas y pasar tiempo con su hermano pequeño.